

# Liburuak

## HERRIKO BATASUNA EDO EUSKAL KIBBOUTZ-A: EKONOMIA ETA KULTURA

Israelen azken 60 urte hauetan eraiki izan diren kibboutz-ak, ezagunak eta famatuak ere dira mundu guzian. Han edo hemen bilkura batzuetan entzuna ginuen ere Euskal Herrian horrelako zerbaít mutatu beharko litzakela. Zerbaít idatzirik ere izan da, naski, hortaz, teorían bederen.

Hala ere hemen aipatuko dugun liburuak (Stratégie du développement économique du Pays Basque: Herriko Batasuna) beste zerbaít ekartzen du.

Befiat Laxague Alduidar (Nafarra) gazteak, euskal ekonomiaz orain arte idatzi diren liburu guziez bestelakoa atera du: *aldrebes hartzen ditu denak, kulturatik hasiz, eta irakurle harriturik uzten du...* Teoria aipatzen badu ere, gure aintzinean, hor, hemen, euskal herri batean, konkretuki xutik ezartzen dauku Herriko Batasuna (eta ez bakarrik aipatzen) fede edo sinesmen gaitzarekin idatzia bada bere liburutxoa: afirmazio bat bada gehiena.

Hiru zati ditu. Eta lehenean agertzen du euskal ekonomia ren pizteko edo azkartzeko bidea: euskal kultura! Bal, zinez, Aita Charritton-ek dior bezela bere hitzaurre aberats eta oraikotasunez betean, Utopia-n gira. Utopia hutsen. Ba ginakien Pariseko ikasleen artean asko aipatzen zela Utopia. Orain euskaldunek ez dute zorrik. Domaia da zati hori laburra bada. Ba ditu ateraldi politik eta euskal kultura argi berri batekin ikusten bada hor. Bide berri bat ere idekitzen zaio...

Bigarren alean, Herriko Batasuna edo kibboutza bera erakusten dauku: xokoz xoko dena ikertzen du, hainitz estruktureen (gehienen) arrazoiak erakusten. Benetan interesantea haurren altxatzeaz agertzen dituen xedeak: haurrek andereñoen eskuetan gau ta egun guzia, salbu hiru oren. Orduan aitetamak disponibildade haundienean litaizke horien edukazioaz arta hartzeko. Euskaldun familia (eta hau instituzio azkarra delarik gure herrian) arras bestelakaturik gelditzen da. Huntaz sortuko dira eztabaida haundiak. Haatik bizi bide berri huni esker dute bai gizonak eta bai (hemen oraino gehiago) emazteak euskal kultura aurreratzeko denbora eta beraz gutzizia izanen. Erran gabe doa hortako errextasun guziak izanen dituela Herriko Batasunak (liburutegi, mundu guziko errebista eta kazetak, zinema, eta abar...).

Ekonomia aldetik, Batasunaren erabil moldea industriako kooperatibena izanen da (biltzar, buruzagien hautatzeko bozka, irabazi neurtuak...)

Gure Euskal Herri zahararentzat alimaleko afirmazioak botatzen ditu. Meritu haundia du hortan. Bestela ere iduritzen zaio, gure idazleari, gure ekonomia hain dela behera nun ez duen deus galtzeko.

Bururatzeko ikertzen ditu zer medio behar diren holako Utopia bat konkretorat eta euskal lurrerat ekartzeko. Hemen ere idela azkar bat: Euskaldunen Anaitasuna edo mundu zabalean diren euskaldun guzien batasuna eta Herriko Batasunaren geriza.

Okazioneaz baliá, zonbeit oharpen nere lagun eta adiskide den Befiat-i: Kultura eta ekonomia ba dakigu segur elgarri tinki daudela eta ez beti marxistek uste izan duten moldean. Elgarrekin ikusi dugu Moskun Pouchkine-n iduria egunero lorestatua eta ohoratua zela eta ez balin bazen Lenine-n mosolean bezelako jende osterik ere, han

senditzen ginuen kartsutasun ixil bat hunen inguruan, eta bertzean kuriostasun gehiago. 1835-ean da ruso-literatura goi-mailera heldu hunekin, eta geroztik, 80 urtez, sortu dira Gogol, Tourgeniev, Dostolevski, Tolstoy eta bertze zonbat. Moskuko ikasle batekin hizketan arats batez konprenitu dugu Lenin posible izan zela, parte handi batenz, hauengatik. Sobietismoa gehienetan errusitasuna zela: «Beti ingelesez, noiz ikasiko duzute rusoa» erraiten zaukularik.

Gero Japonian harriturik gelditu ginen, xilatu ginuelarik, zer urgulua eta zer lanak eskatzen zazkoten beren kulturak. Japonesez idazteko apur bat, Batxilleraino egiten dituzte idazketako eskolak (2.000 letra-seinale edo karakter dazkite orduan) eta ongi idazteko 6.000 edo 7.000 jakin behar dira (25.000 direlarik japonesez karakter guziak).

Hauk oroitaraziz, erran nahi dut kultura, euskal kultura zimendutzat ezarritz, abiatzekotz gure herriaren salbazioa orai egiten dugun baino aise ta aise indar gehiago behar dugula egin, euskaldunek, bereziki euskararentzat. Huntan sobera optimista iruritzen zaut nere adiskide: euskal kultura aipatzen du, «den» gauza bat bezela, ebo-luzioa eta egitekoa aipatu ere gabe.

Bestalde, etsenplu hainitz hartzen balin baditu ere Hego aldean (eta nun har lezazke bestela?) euskal batasunaz guti erraiten du. Eta hau gabe, euskal kulturarik posible doa? Bide hortan, lehen bai lehen egiteko den gauza: bere liburu euskaraz itzultzea.

Bigarrenik, gure zibilizazioa krisa harrigarrian dago. Seinaletarik bat, Japoniako «zen-gakuren» ikasleetan lehenik (askok, Berkeley-en gertatu zela uste izanikan ere) agertua, Frantzia, Maiatzeko gertakariak Unibertsidadetik kaleratua. Deituko dut kultura eta ekonomiaren burruka: hobeki erraiteko kulturazaleek, ekonomizaleengandik errefusatzen duten buruzagitza eta alienazioa.

Huni begiratzuz indar handia du liburu hunek. Haatik hemen ere, ni beldur, Ipar aldeko ikasleek ez dutela guti baizik parte hartu Maiatzeko ideien harat hunatetan. Optimista agertzen da hemen ere nere adixkidea. Aita Charritton-ek ere, dion bezela, nere ustez, Hego aldean izan dezake Herriko Batasunak arrakastarik haundiena.

Horrengatik merezi luke liburu hunek asko zabaltzea.

Idazleak denak gomitatzen ditu beren ikusmoldea gauza hortaz, berari hel araztera. Segur, erantzun asko merezi du, gain gainetik interesanta baida argitzen duen bidea, eta, bixtan dena, euskal etorkizunarentzat premiatsugarrenetarik.

Idazlearen zuzenbidea: B. Laxague, 64 Aldudes (France).

RAMUNTZO CAMBLONG

## BERNAT DECHEPARE: *Olerkiak*

«Txertoa Sorta». Ediciones Edili. San Sebastián, 1968.

Bernat Detxeparek idatzi eban olerki sorta liburuaren bederatzigarren argitaraldia da hau. Horretan gagoz behintzat. Zazpi argitara-aldikoen aleak ezagutzen geinuzan, eta bat bakarra lehenengokotzat daukagun 1545-garrenekotik. Denbora asko ez dala jakin dogu, beste bat be egin zala Erroanen, hemengoaren alerik orainarte agertu ezpada be.